

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 427/2020 Erabakia, irailaren 29koa. Onestea Arabako Lurralde Historikoko foru sektore publikoko datuak babesteko ordezkariaren eginkizunak aldi baterako esleitzea Diputatu Nagusiaren Saileko Idazkaritza Teknikoko eta Herritarrak Atenditzeko Zerbitzuaren buruari

Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak 34. artikuluan xedatzen du tratamenduaren arduradunek eta eragileek datuak babesteko ordezkari bat izendatu beharko dutela Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoak, 37.1 artikuluan aurreikusitako kasuetan, eta horien artean dago tratamendua agintari edo erakunde publiko batek egitea.

Beste alde batetik, 37.3 artikuluan xedatzen du tratamenduaren arduraduna edo erantzulea agintaritzaren edo organismo publiko bat baldin bada, datuak babesteko ordezkari bakarra izendatu ahal izango dela agintaritzaren edo organismo horietako bat baino gehiagotarako, horien antolaketa egitura eta tamaina kontuan izanik.

Gobernu Kontseiluaren abuztuaren 2ko 518/2019 Erabakiaren bidez, Carlos Fernández de Betoño Hernández izendatu zen datuak babesteko ordezkari, zerbitzu eginkizunetan atxiki zitzaizkion Diputatu Nagusiaren Saileko datuak babesteko teknikariaren lanpostuari.

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren irailaren 18ko 333/2020 Foru Aginduaren bidez, xedatu zen Carlos Fernández de Betoño Hernández behin betiko atxikitzea Garraio Ikuskaritzako zerbitziburu lanpostuari, 2020ko irailaren 28tik aurrerako ondorioekin, eta, beraz, automatikoki utzi zion datuak babesteko ordezkari izateari.

Horregatik, Diputatu nagusiaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Datuak babesteko ordezkariaren eginkizunak aldi baterako esleitzea Diputatu Nagusiaren Kabinetearen Zuzendaritzakoldazkaritza Teknikoko eta Herritarrak Atenditzeko Zerbitzuaren buruari.

Bigarrena. Datuak babesteko ordezkari bezala bete beharreko eginkizunak hauek izango dira:

1. Tratamenduaren arduradun edo erantzuleari eta tratamendua egiten duten Arabako Foru Aldundiko langileei informazioa eta aholku ematea datuen babesaren gaian aplikatzekoa den araudiaren ondorioz dagozkien eginbeharrez.

2. Ikuskatzea datuen babesari buruzko araudian xedatutakoa betetzen den, eta tratamenduaren arduradun edo erantzulearen politikak datu pertsonalen babesaren gaian, barnean daudela arduren esleipena, tratamendu lanetan parte hartzen duten langileen kontzientziazioa eta prestakuntza eta dagozkion auditoretzak.

3. Eskatzen zaion aholkularitza ematea datuen babesarekin loturiko inpaktu ebaluazioaz, eta horren aplikazioa ikuskatzea.

4. Kontrol agintaritzarekin elkarlanean aritzea.

5. Kontrol agintaritzaren kontaktu puntu bezala jardutea tratamenduarekin loturiko kontuetarako, barnean dagoela aplikatzekoa den araudian aurreikusten den alde aurreko kontsulta, eta beste edozein gairen inguruko kontsultak egitea, hala badagokio.

6. Datuen babesaren arloko lege antolamenduak ordezkariarentzat aurreikusitako gainerako eginkizun guztiak betetzea.

Hirugarrena. Erabaki honek onesten den egunetik aurrera izango ditu ondorioak, ALHAOn argitaratzen den eguna gorabehera.

Laugarrena. Izendapenaren indarraldiak iraungo du datuak babesteko ordezkari eginkizuna esleiturik daukan lanpostu berri bat hornitu arte, Diputatu Nagusiaren Saileko lanpostuen zereendaren barruan.

Bosgarrena. Datuak Babesteko Europako Arautegi Orokorraren 37.7 artikuluan araututakoarekin bat etorritik, argitara emango dira datuak babesteko ordezkariaren beharrezko datuak, bera-ekin harremanetan jarri ahal izateko, eta haien berri emango zaio kontrol agintaritzari.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 29a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Diputatu Nagusiaren Kabinetearen eta Komunizazioaren zuzendaria

ELENA FERREIRA SEBASTIÁN